


PRESSBOOK





BOLANTE BATEN HISTORIA

IÑAKI ALFORJA ETA IBAN TOLEDOREN FILMA BAT

ZUZENDARITZA: ARGAZKIA ETA GIDIOA **IÑAKI ALFORJA, IBAN TOLEDO** EKOIZPEN ZUZENDARIA **LUCIA EZKER** EKOIZLE DELEGATUA FRANTZIAN **FLORENT COULO** EKOIZPEN IDAZKARIA FRANTZIAN **FÉLIX SALGADO**
MUNTATIA **MATHIEU GOULLIARD** MUSIKA KONPOSIZIOA **PELLO RAMIREZ** ZUZENEKO SOINUA **DANEL CIAURRIZ**

SOINU POSTPRODUKZIOA **DANEL CIAURRIZ** MUSIKA EKOIZPENA **PELLO RAMIREZ, VICTOR SÁNCHEZ** ETALONAJEA ETA MOTION GRAPHICS **THIERRY SCHMITT**

ON PRODUKZIOAK, VRAI VRAI FILMS ETA IÑAKI ALFORJAREN KOPRODUZIO BAT



LABURPENA

Behartutako desagerpen batek ez du soilik desagertuaren bizitzarekin amaitzen, uretara botatako harri batek sortzen dituen uhinen antzera, orbain emozional bat uzten du familiarengan eta gizartearengan.

80ko hamarkadaren hasieran, Komando Autonomo Antikapitalistetako kidea zen Jose Miguel Etxeberria Alvarez, *Naparra*, desagerrarazi zuten. Gurutzatutako komunikatuen, hainbat aldarrikapenen eta axolagabekeria judizialaren aurrean, familiak desagerpenari erantzun bat ematen saiatu zen. Anaiaren desagerpenak irekitako zauria sendatzeko asmoz, Eneko da berrogei urtetik gora iraun duen bilaketaren lekukoa hartu duena.

Una desaparición forzada no acaba solamente con la vida de la persona desaparecida, sino que genera, como las ondas de una piedra arrojada al agua, una enorme cicatriz emocional en las familias y en la sociedad.

A principios de los 80 es hecho desaparecer José Miguel Etxeberria Álvarez, Naparra, miembro de los Comandos Autónomos Anticapitalistas. Entre comunicados cruzados, reivindicaciones varias e indiferencia judicial, su familia intentó dar una respuesta a la desaparición. Tras más de cuarenta años, es Eneko quien ha cogido el testigo de la búsqueda de su hermano para cerrar la herida que lleva tantos años abierta.

FILMAKETA ETA EKOIZPENA

Jose Miguel Etxeberria –*Naparra*– desagerrarazi zutenetik lau hamarkada igaro diren honetan, Iñaki Alforjak eta Iban Toledok memoria historikoarekin konprometitutako proiektu honi heldu diote, historia hurbilak ikusezin bihurtutako eta aitopena merezi duten biktimei omenaldia egiteko.

Alforjak eta Toledok film konprometitu eta zorrotz bat (arloan historikoan eta politikoan) jarri dute martxan, baina protagonistaren eta horren familiaren intimitatetik begiratuta; horretan sortzen dira loturak eta enpatia, eta tokiko gertaera bat istorio unibertsal bihurtzeko identifikazioa sortzen da.

Euskaraz eta gaztelaniaz filmatuta, Eneko Etxeberria eta bere familiaren eraldaketan oinarritzen da, gizarte batek bere iraganari nola aurre egiten dion, gatazka bortitz baten ondoren nola aurrera egiten duen eta Egia, Justizia eta Erreparazio printzipio unibertsaleetatik aurrera nola egiten duen aztertzeko. “Bolante baten historia”k gure hildakoak lurperatu beharraz hitz egiten du, dolua osatze aldera. Hainbat herrialdetan bizi izandako gertaera askotara estrapola daitekeen sentimendua da, historia hori nazioartekotzen laguntzen duena.

2017an Jose Miguelen familiaren irudi batzuk filmatu ondoren –Celesen, *Naparraren* eta Enekoren amaren urtebetetzea, edo ekainaren 11n urtero egiten duten omenaldia–, filmaketa 2020ko urrian hasi zen ofizialki, eta Nafarroako (Iruñea, Auritz), Gipuzkoako (Lizartza, Hondarribia, Donostia), Iparraldeko (Baiona, Ziburu, Hendaia) eta Frantziako beste herri batzuetan (Brocas eta Labrit, kasu), non, zantzu batzuen arabera, Jose Miguelen gorpua egon daitekeen. Filmaketa Suitzara joango zen 2020an, familiari jarraitzeko, Desagerpen Behartuei eta Nahi Gabekoei buruzko NBEko Lantaldeko batzorde batera gonbidatu zuenean.

Iñaki Alforjak eta Iban Toledok zuzenduta, idatzia eta haien argazkiekin, Danel Ciaurriz (Rocketsound) da soinu arduraduna, Kanakldude arduratu da muntaiaz eta Pello Ramirezek sinatu du musika. Lucia Ezker da ekoizpen-zuzendaria. Alforja eta Toledo dira produktore eragileak. Natxo Leuzak egin du filmaren kartela, Joseba Zabalkak bere “Nombres para recordar/Gogoan hartzeko izenak” liburuan argitaratutako argazki batetik abiatuta.

Eneko Etxeberria, *Naparraren* anaia da film luze/dokumental honen protagonista. Bilaketa horretan, Celes Alvarez (ama); Oier Etxeberria (hamaika urteko semea); eta Amaia Irigoien, (emaztea) izan ditu bidelagun. Horrez gain, filmean hainbat pertsonaia agertzen dira aldian behin: Paco Etxeberria, Aranzadiko auzitegiko mediku aintzatetsia; Enrique Zurutuza, Komando Autonomo Antikapitalistetako kide ohia; Luciano Hazan, desagertutako pertsoneri buruzko NBEko lantaldearen koordinatzailea; Tito Eseberri, Jose Miguelen bikotekide ohia; Iñigo Iruin, abokatu; eta Eugenio Etxebeste, ETAko kide ohia.

Filma ‘On produkzioak’ gipuzkoarrak, Iñaki Alforja nafarrak eta Vrai Vrai films frantziarrak ekoitzi dute. 2019an Sunny Side of the Doc jaialdian –Frantziako La Rochelle herrian– eta Euskal Herriko Ikus-entzunezko Ekoizle Independenteen Elkarteak (ibaia) antolatutako hainbat forotan aurkeztu zen. Gipuzkoako Foru Aldundiaren, EiTren, Nafarroako Gobernuaren Memoriaren Institutuaren eta Eusko Jaurlaritzaren Gogora Institutuaren, Kanalduderen (Iparraldeko Telebista), Eusko Jaurlaritzaren, Frantziako Zine eta Irudi animatuen Zentro Nazionalaren (CNC) eta Nafarroako Gobernuaren babesarekin. Halaber, Verkami plataforman mikromezenasgoko kanpaina batean parte hartzen du, eta ia 400 babeslerekin dihardu lankidetzan. Gainera, artxiboko materiala ekarri dute Hego Euskal Herriko filmotekek eta partikular batzuek. Proiektua hainbat lantegitan ere aukeratu dute; besteak beste, Media Euskadik antolatutako nazioarteko koprodukzioari buruzkoan eta Zinebi Networking zinema dokumentalaren foro profesionalan.

Filmaren mundu-mailako estreinaldia Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren 69. edizioko Zinemira sailean egingo da. Zinemaldia 2021eko irailaren 17tik 25era bitartean egingo da, eta bertan Euskal Zinemaren Irizar Saria irabazteko lehiatuko da.

FITXA TEKNIKOA

- ZUZENDARITZA: Iñaki Alforja, Iban Toledo
- GIDOIA: Iñaki Alforja
- Argazki-zuzendaritza: Iban Toledo
- SOINUA: Danel Ciaurriz (Rocketsound)
- MUNTAKETA: Kanaldude
- MUSIKA: Pello Ramirez
- EKOIZPEN ZUZENDARIA: Lucia Ezker
- PRODUKTORE ERAGILEAK: Iñaki Alforja, Iban Toledo
- BATERAKO EKOIZLEAK: Vrai Vrai Films (Frantzia)

DATU TEKNIKOAK

- Generoa: film luze/dokumentala
- Iraupena: 90 min
- Filmaketaren dormatua: 6K
- Proiekzio-formatua: 4k DCP
- Ratioa: 2,39:1
- Hizkuntza: euskara/gaztelania

ZUZENDARIEN OHARRAK

IBAN TOLEDO

“Txikitatik entzun diot amonari 1938an desagertutako anaiaren istorioa. Gaur egun, 100 urte eta buru-gaitasunak osorik dituela, oraindik negar-zotinka gogoan du desagertutako anaia. Eta 1938an bezala, 1980an, Etxeberria-Alvarez familiari pertsona maite bat desagerrarazi zioten; 40 urte hauetan egindako bilaketak haien bizitza kolpatu du. Ez dugu nahi familia honek beste 40 urtez bilatzen jarraitzea.

Gure herrian bizi behar izan dugun gatazka politikoak zauriak utzi ditu, oraindik ere irekita. Asko hitz egin da gatazkek sortu dituen biktimei buruz, baina askoz gutxiago maitatua den pertsona baten desagerepena jasan duten beste biktima horiei buruz.

Ezin gara inguratzen gaituen errealitatetik kanpo geratu. Horregatik, horrelako dokumental batek lan pedagogiko eta soziala izan behar ditu, gertaerak eta horien mami politikoa ezagutarazteko, baina aintzat hartu behar ditu, halaber, hainbeste sufritzen duten familiak”.

IÑAKI ALFORJA

“Nire haurtzaroa indarkeriak, bonbek, erailketek, erreprimututako manifestazioek, debekuek, gizarte-asaldurak, torturek eta makina bat oinarrizko eskubide-urraketek markatu zuten. Ez nuen aukeratu mundura iristeko lekua, ezta unea ere, baina bizi izanak gertatutakoari buruzko oso begirada pertsonala izatea ekarri dit.

Etxeberria familiaz hitz egiten dugunean, gure familiez hitz egiten dugu. Enekoren seme Oierren adi bereko alaba bat dut. Eta berak bezala, nik ere ez dut nahi nire esperientzia negatiboen motxila jasotzea oinordetzan. Bere oraina eta geroa idatziko duen orri zuri baterako eskubidea izan dezan nahi dut.

Ez dugu ez kazetaritza- ez polizia-dokumentalik egin. Ez dugu gertatutakoari buruzko erantzunik ematen; galderak egiten ditugu. Geure egiten dugu familiak 40 urtez jakin duena. Izaera pertsonal nabarmena duen dokumentala da hau, bizitza-historia bat. Baina, egia esan, pertsonala den hori politika ere bada, eta jorratzen ditugun gertaerak testuinguru oso jakin batean gertatzen dira, alde batera uzterik ez duguna”.

ZUZENDARIEN BIOFILMATOGRAFIA

IBAN TOLEDO

Bi hamarkadako ibilbide profesionala du ikus-entzunezkoen arloan, eta tarte horretan telebistako albistegietako errealizadore, kamera-operadore eta dokumentaletako argazki-zuzendari lanak egin ditu. 2009. eta 2015. urteen artean, komunikazio-enpresa batean egin zuen lan, eta bideo korporatiboak, instituzionalak, publizitatea eta dokumentalak egiten zituen. 2015ean On Produksioak ekoiztetxea jarri zuen abian. Azken urteotan hainbat film dokumentaletan esku hartu du.

Filmografia:

- “Aralar, mundua leku den lurra”. Zuzendaritza, ekoizpena eta argazki-zuzendaritza
- “Uda minean, Negua”. Zuzendaritza eta argazki-zuzendaritza
- “Ladakh, Tibet txikia”. Zuzendaritza eta argazki-zuzendaritza
- “Pasaiaiko Badia”. Argazki-zuzendaritza
- “Ni, Arga”. Argazki-zuzendaritza
- “Ziordiko ilargia”. Argazki-zuzendaritza
- “Aulki hutsak”. Argazki-zuzendaritza
- “Malko gorriak, gerra zibila Aretxabaletan”. Argazki-zuzendaritza
- “30 urte erdiko kaletik”. Argazki-zuzendaritza

IÑAKI ALFORJA

Zuzendari independentea, 30 urteko esperientzia duena. Dokumentaletan da espezialista, baina spotak, bideo korporatiboak, filmak eta bideoklipak ere egiten ditu, gizarte-begirada nabarmenarekin. Hainbat ekoiztetxerentzat egin du lan: besteak beste, Arena Comunicación, Kanaki Film eta 93 metros.

Filmografia:

- “Motxila 21 Live, Zuzenean, En vivo!!” Ekoizpena, zuzendaritza eta argazki-zuzendaritza
- “Oskara”. Zuzendarikidetzat
- “Sueños de Kathmandu”. Zuzendaritza
- “Ezkaba, la gran fuga de las cárceles franquistas”. Ekoizpena eta zuzendaritza

TALDE ARTISTIKOA

PROTAGONISTA

ENEKO ETXEBERRIA ALVAREZ

Naparraren anaia. 17 urterekin, bere bizitza erabat aldatu zen bere anaia desagertu zenean. Bilaketarekin jarraitzeko behar morala jaso zuen bere gurasoengandik. Enekok, gaur egun, familiaren sufrimendua irudikatzen du. Orain oinordetza hori 11 urteko semeari, Oierri, uzten dion erabaki behar du.

AKTORE SEKUNDARIOAK

CELES ALVAREZ

Naparraren ama. Semea desagertu aurretik, etxeko lanetan aritzen zen emakume xumea zen. Bere itxura fisiko hauskorra ez dator bat emakume horren nortasun irmoarekin, Jose Miguelen bilaketak landua.

OIER ETXEBERRIA

Enekoren eta Amaiaren semea. 2010ean sortu zen; beraz, ez zuen osaba ezagutzeko aukerarik izan, ezta zein testuinguru politikotan desagertu zen ere. Egoera hori beti egon da bere familian, eta gurasoek ez diote inoiz ezkutatu. Oier historia honetako geroa da.

AMAIA IRIGOIEN

Amaia Enekoren emaztea da. Beraien itzaropenak irudikatzen ditu, eta senarraren anaiaren bilaketari eta bere absentziari aurre egiteko modu berri bat. Eneko ezagutu aurretik ez zuen politikarekiko interes berezirik, eta kontu hau arrotz zitzaion. Izaera handiko emakumea da, eta oreka ematen dio familiari Eneko anaiaren bila buru-belarri hasten denean. Bere aldetik, une latzenetan behar den lasaitasuna aurkitzen du Enekorengan.

IGAROLA BEHEKOA BASERRIA

Lizartzan, harlanduz eta zur noblez eraikia, euskal etxe tipiko honek protagonismo berezia du filmean; istorio honetako beste pertsonaia bat da. Baserriak denboraren igarotzea adierazten du, urtaroen iragaiteak eta landako lanek markatua. Baserriak familiaren batasuna irudikatzen du. Bertan egin dira Jose Miguelen ospakizunak eta omenaldiak. Patxiren eta Celesen erretiro-lekua eta *Naparraren* oroimenak irauten duen espazioa da. Hemen hartzen dute atseden gurasoen errautsek, eta egunen batean anaiarenak ere egongo diren itzaropena du Enekok.

ALDIZKAKO PERTSONAIAK

PACO ETXEBERRIA

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta antropologo forentsea, nazioartean ezaguna. Txileko presidente Salvador Allenderen edo Victor Jararen autopsietan eta Espainiako memoria historikoa berreskuratzen parte hartu du. Bere ikerketen artean Lasa eta Zabalaren gorpuen identifikazioak nabarmentzen dira. Biktimekiko justiziarekin, egiarekin eta erreparazioarekin duen konpromisoa auzitegiko medikuaren lanbidetik haratago doa. Ematen dituen azalpen zientifikoak argiak eta irmoak dira.

ENRIQUE ZURUTUZA

80ko hamarkadan Komando Autonomo Antikapitalistetako (KAA) kide izan zen. Erakunde horretako kide izan zirenentzat erreferentziazko pertsona izan da. Enrique Jose Miguel Etxeberriarekin bizi izan zen Ipar Euskal Herrian erbesteratuta. Espainiako poliziak balaz zauritu zuen, eta espetxean eman zituen hainbat urte. Enriquek argia ematen du erakunde armatuen sareari buruz eta, bereziki, orientazio asanbleario-libertarioko Komando Autonomo Antikapitalistei buruz.

LUCIANO HAZAN

Desagerpen Behartuei buruzko NBEko lantaldeko presidente-kontalaria. Jose Miguelen kasua Nazio Batuen Erakundearen aurkako Delitu gisa aitortzeak zer esan nahi duen azalduko du, eta Nazio Batuen Erakundeak munduko hainbat estatutako aparatu parapolizialak erantzule dituzten desagertuei buruz duen nazioarteko ikuspegia emango du.

TITO ESEBERRI

Jose Miguel Etxeberriaren bikotekidea, hura desagertu zen garaian. Askotan zeharkatu zuen muga Jose Miguelekin Hendaian egoteko, Ipar Euskal Herrian. *Naparra* desagertu ondoren, hainbat aldiz atxilotu eta torturatu zuten.

EUGENIO ETXEBESTE

ETAko kide historikoa da, eta Espainiako gobernuaren solaskide izan da balizko negoziazioetan. Pertsonalki ezagutu zuen Jose Miguel. Desagertu ondoren, lehen berrien arabera, erakunde horren erantzukizuna zen. Horregatik, Etxeberria-Alvarez familia lehenik Eugeniorekin bildu zen. Bere testigantzarekin, erakunde armatuen arteko ezberdintasunak, eta prentsaren eta estatu espainiarraren rola argituko ditu.

DESAGERPENAK

Desagerpen behartu batek min sakona uzten die familieei. Baina, askoz haratago doa. Orbain soziala sortzen du, eta horrek zatiketak eta liskarrak sortzen ditu gizartean. Iraganera lotzen gaituen eta aurrera egitea eragozten digun katea da. Bizi nahi dugun etxean gaizki bermatutako zutabea da.

Naparrarena, ordea, ez da kasu bakana. Amnistia Internazionalaren arabera, 5 milioi pertsona desagerrarazi dituzte planetan. Horrelako desagerpen batek ez dio pertsona horri bakarrik eragiten, familia oso bat mintzen du belaunaldiz belaunaldi. Hilobiratzeko hilotzik gabe, ez dago dolurik.

PRENTSARENTZAKO KONTAKTUA

NUEVE CARTAS COMUNICACIÓN

Andres Garcia de la Riva
escribe@nuevecartas.com
672 376 162

BANAKETAK KONTAKTUA

ETA

PROGRAMAZIORAKO



T. +34 944 240 559

E. bartonfilms@bartonfilms.com

c/Uribitarte, 8 - 4ºDcha A

48001 Bilbao - Bizkaia

bartonfilms.com